## Rodolfo Aresi elkarrizketa 'El Punto... saioan

ETB2 • 09:30ean



Juan Luis Bikuña eta Jabi Atutxa kazetariek PSOE-EE alderdiko bozeraimale Rodolfo Ares izango dute gonbidatu.

### ETB 1

07:15: **Beakmanen mundua.**
07:30: **Betizu.**
08:50: **Herri musika sorta.**
09:10: **Euskal Herritik.**
09:40: **Bizitzeko hl beharra.**
10:20: **Sorginen Laratza.**
11:25: **Ikusgela.**
12:25: **Sautrela.**
12:55: **Iparraldearen orena.**
13:05: **Madison.**
13:30: **Gaur egun.**
14:05: **Bertatik Bertara.**
14:30: **Goenkale.**
15:10: **Telefilmak.**
**Basalurren deia**
Zuz: Peter Svatek. Akt: Rutger Hauer, John Novak. 1.997.
16:45: **Bidaide.**
17:40: **Parker Lewisek ez du sekula galtzen.**
18:15: **E-klipsea.**
18:45: **Betizu.**
20:28: **Gaur Egun.**
21:10: **Bertatik Bertara.**
21:40: **Goenkale.**
22:25: **Sorginen Laratza.**
23:55: **Gagnorarik gagbe.**
00:30: **Bakarrik.**
02:10: **Bertatik Bertara.**
02:30: **Jaun ta jabe.**
03:10: **Osabideak.**
03:05: **Ikusgela.**
03:55: **Eguzki lore.**
04:20: **Benta berri.**
04:45: **Axut.**
05:10: **Amaren etxea.**
05:40: **Urak dakarrena.**
06:10: **Rock azoka.**
06:40: **Transizioa Euskadin.**

### ETB 2

07:25: **Del país de los vascos.**
07:50: **La buena vida.**
08:20: **La cruda realidad.**
08:40: **Loco por ti.**
09:05: **Europa, Europa.**
09:30: **El punto...** Gonbidatua: Rodolfo Ares.
10:00: **Forum.** Gonbidatua:Alfonso Carlos Saiz de Valdivielso. Idazlea eta kazetaria.
10:35: **Adderly.**
11:25: **Los hombres de Harrelson.** Telesaila.
12:15: **La ley de la bahía.** Telesaila.
13:00: **Bonanza.** Telesaila.
14:00: **Gran Parchis TV.**
14:28: **Teleberri.**
15:20: **Lo que faltaba.**
18:35: **Zinema.**
**El séptimo de caballería.**
Zuz.: Joseph H. Lewis. Akt.:Randolph Scott, Barbara Hale. 1956.
19:55: **Esta es mi gente.**
20:58: **Teleberri.**
21:50: **Euskal Herria: la mirada mágica.**
22: 10: **Veterinarios.**
23:10: **Edición anterior.** Telesaila.
00:50: **Medias de seda.**
02: 25: **Zinema.**
**Mi obsesión por Helena.**
Zuz.: Jennifer Chambers Lynch. Akt.: Julian Sands, Sherlyn Fenn. 1993.
04:05: **Lo que faltaba.**
07:05: **Amaiera.**

## gaurko filmak

*Ane Muñoz*

**■ MEMORIA LETAL.** Renni Harlin zuzendari finlandiarra indar handiz sartu zen Hollywooden eta, une honetan, akziozko film garesti, erraldoi eta komertzial horiek errealizatzen dituzten zinemagileen artean ezagunetakoa bihurtu da. Bestalde, haren azken filmek ez dute arrakasta handirik izan, ez atzerrian eta ez Estatu Batuetan ere. Eta ez da harritzekoa, izan ere, garestiak izanik, gehienak kaskar, zozo eta aspergarriak baitira. Efektu berezi digitalez apaindutako zinta honek oso aktore ezagunak biltzen ditu eta, noski, rol nagusia, Geena Davis, zuzendariaren bikote ohiak jokatzen du, Samuel L. Jackson interesgarriaren alboan.

**■ LA LEGION DEL DESIERTO :** Joseph Pevneyk aktore ospetsuekin filmatutako zinta beliko zahartxo hau entretenimendu gisa ikus dezakezue, edukiz nahiz errealizazioz txiki eta arrunt samarra bada ere. Alan Ladd eta Arlene Dahl izarrak rol nagusietan biltzen ditu.

**■ APRILE.** Nanni Moretti italiarrak "Caro Diario-ren" arrakasta errepikatu nahi izan zuen eta, hartarako, bere gogoeta pertsonalak eta obsesioak bilduko zituen beste proiektu hau pantailaratu zuen. Zinemagile ero samar eta ironiko horren miresleen gustukoa izango den abentura umoretsu hau, hark protagonizatzen du, ohi bezala. Atal ezberdinetan banatua, film zuzena da baina, tira, estiloa gustatu behar !

**■ MI OBSESION POR HELENA.** David Lynch maisu paregabearen alabak zuzendu zuen, hau da Jennifer Lynch gaztea, aitaren bikote ohia aktoreen artean aurkeztuz; Sherilyn Fenn erakargarria da eta, oraingoan, Helenaren rola antzezten du, Julian Sands ezaguna alboan duela. Ez da kalitatezko filma, estilo ezberdinak taktu gutxirekin nahasten dituen entsalada estetiko arrunt eta zozoa baizik. Onena, antzezpenak dira filmean.

### *Idolo gihartsu bati bultzada*

**■ TERMINATOR.** Arnold Schwarzennegger gihartsua nazioartean ezagutzera eman zuen akziozko film fantastiko garesti eta komertzial honek. Sail arrakastatsu baten lehen atala, ez du aurkezpenik behar. Duen erakargarritasun nagusia, dudarik gabe, efektu berezi landu eta harrigarrietan dago. Berez argumentua txorakeria bat da, hamaika bider zinemaratua izan den istorio arrunta kontatzen baitu, biolentziazko eszenez josiz. Halaz eta guztiz ere, entretenigarria da.

| | | |
|---|---|---|
| **Sous le signe de Rome** 1959, Guido Brignone, 90 m. | ♠♠ | 08:30 C+(f) |
| **Con ella llegó el amor** 1969, Ramon Torrado, 88 m. | ♠ | 11:00 La2 |
| **El coraje de una madre** 1997, David Burton Morris, 87 m. | ♠♠ | 16:15 T5 |
| **El séptimo de caballería** 1956, Joseph H. Lewis, 79 m. | ♠♠ | 18:35 ETB2 |
| **Est quest** 1998, Regis Wargnier, 120 m. | ♠♠ | 21:00 C+(f) |
| **Memoria letal** 1996, Renny Harlyn, 116 m. | ♠♠ | 22:15 A3 |
| **Pánico en el tunel** 1996, Rob Cohen, 114 m. | ♠♠ | 22:20 TVE1 |
| **Aprile** 1998, Nanny Moreti, 80 m. | ♠♠♠ | 23:20 Arte |
| **Levres de Sang** 1974, Jean Rollin, 85 m. | ♠♠ | 23:25 C+(f) |
| **L' Addition** 1984, Denis Amar, 85 m. | ♠♠ | 00:25 F3 |
| **Terminator** 1984, James Cameron, 103 m. | ♠♠♠ | 00:45 TVE10 |
| **Mí obsesión por Helena** 1993, Jennifer Chambers, 95 m. | ♠♠ | 02:25 ETB2 |
| **Mystere** 1993, Carlo Vanzina, 84 m. | ♠♠ | 01:45 La2 |
| **Los desesperados** 1969, Julio Buchs, 102 m. | ♠♠♠ | 03:15La2 |
| **La legión del desierto** 1953, Joseph Pevney, 82 m. | ♠♠ | 03:30 TVE1 |

♠ TXARRA · ♠♠ ESKASA · ♠♠♠ BALEKOA · ♠♠♠♠ ONA · ♠♠♠♠♠ BIKAINA



Geena Davis *Memoria Letal* filmeko irudi batean.

## irratia

**Bizkaia Irratia.** Goizean goiz, 07:00etan, esnatuko gaitu *Aupa Bizkaia* irratsaioak. Jarraian, 09:00etan hasita, ordu erdiko meza eskainiko dute egunero bezala. Eta ondoren, zorion agurren tartean entzuleek telefonoak hartu eta irrati bidez agurrak bidaltzeko aukera izango dute. Handik pixka batera, *Jira Biran* emango digute pil-pilean dauden gaien berri. Eta kantari jarriko gaituzte arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara *Kantuka eta Kontuka* saioan. Hortik aurrera, elkarrizketak, kultur albisteak, eta beste hamaikatxo kontu ekarriko dizkigu *Bilintzi Balantza* irratsaioak. *Gau dantza*-ren tartea 21:00etan hasiko da. Eta amaitzeko, 22:00etatik 23:00etara, *Izar argitan* egingo digute egunak ekarri duenaren errepasoa.

**Radio Euskadi.** Iñigo Urkullu gonbidatuko dute *Boulevard* irratsaiora. EAJ alderdiko Bizkai Buru Batzarreko presidente eta legebiltzarkideari elkarrizketa egingo diote. Euskal Herriak, bereziki zentsura mozioen ondoren eta ETAren azken atentatuekin, bizi duen egoera politikoa izango dute aztergai eta hizpide, baita Miarritzen egingo den goi bilera ere.

www.deika.com
943 344 494

• TELEF. FINKOA
• TELEF. MUGIKORRA
• AHOLKULARITZA INFORMATIKA
• INTERNET
• TELEFONOGUNEAK
DEIKA telekom
ENPRESA ZERBITZUA:
M. Etxeberria 1
ERRENTERIA
BANATZAILE OFIZIALA:
Euskaltel
Morrongilleta 1
ERRENTERIA
Hirib. Nafarroa 25
BEASAIN
Areizaga 1
URRETXU